



BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA



AIURRI

1997ko apirilaren 11a. 56. Zenbakia. Doan banatzen da.

Esperoan egon



ADUNA:

**APAIZ ETXE
ATERPETXE**

ANDOAIN:

**ISKANBILAREN
OGIA.**

ASTEASU:

ARGAZKI GELA

BILLABONA:

**ATXILOTUAK
KALEAN**

ZIZURKIL

**ONGIZATEKO
LAGUNTZAK**

➡ **JOXAN
AGIRREREKIN
SOLASEAN**

➡ **MATRIARKATUA
AZTERGAI**

IRIARTE JATETXEA

TABERNA




EGUNEKO MENUA
KARTA
BATAIOAK
JAUNARTZEAK

P.M. Otaño Plaza - 20159 ZIZURKIL -% 69 37 50

AMONARRIZ

Iturgintza

Iturgintza
Gasa
Berogailuak
Petrolegaien hornidura



Ugalde Etxea 6. Esk.
Tfnoa. eta Faxe: 69 39 63
Mobila: 907 18 68 77

LARRAUL



Zarate bidea
Tel.: 693983
20159 Zizurkil

Abeletxe

aterpea



APIRILA

25ean: KAFE ANTZERKIA

"LA CEBRA ENAMORADA"

Pilar Guerra-Ritxar Zumalabe

GIDOIA ETA ZUZENDARITZA: Patxi B. Zalbidea

MAIATZA

9an: KAFE ANTZERKIA

"QUEES QUESE"

Latirili taldea: Catherine Marchand "Plum"
eta Ignacio Fdz. de Jauregui "Txubio"

16an: IPUIN KONTALARIA

30ean: IRLANDAR MUSIKA

"THE PORTER SHARK"

EKAINA

13an: MAGIA

TXAN HANDIAREN EMANALDIA

27an: KAFE ANTZERKIA

UZTAILA

**EKINTZA UGARI TOLOSALDEAN
BARRENA BOST EGUNETAN ZEHAR:**

1.ETAPA: Abeletxe-Tolosa

Oinez (edota zaldiz) egiteko ibilaldia.
Sagartzizelai leizezuloa eta Sagastiko tri-
kuharriak bisitatuko dira.

2.ETAPA: Tolosa-Berastegi

Oinez (edota zaldiz) egiteko ibilaldia.
Uzturre-Ipuliño mendietatik zehar.

3.ETAPA: Berastegi-Bedaio

Oinez (edota zaldiz) egiteko ibilaldia.
Añi trikuharriak bisitatu...
Rapel-a egiteko aukera

4.ETAPA: Bedaio-Amezketara

Oinez egiteko etapa. Balerdira igo eta
Amezketara jaitsi.

5.ETAPA: Amezketara-Txindoki

Oinez egiteko ibilbidea. Txindokira
eskalatuz igotzeko irteera. Eskalatzeko
aukera.

Eta horietan zehar beste aktibitate
ugari egin ahal izango dira: espeleolo-
gia, orientazioa, eskalada... Inguruko
monumentu megalitikoak bisitatuko
dira.


1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARAK
Txomin Garmendia
"Udaberria!".
2. **GALDEZKA.**
Eta zuk, ba al dakizu zer den epidurala?
3. **ADUNA.**
Apaiz etxea aterpetxe.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Gazteentzako informazio bulegoa.
Iskanbilaren ogia.
Zine eta dantzaldi emanaldia.
7. **ASTEASU.**
Argazki gela.
- 8-9. **BILLABONA.**
XXIX. mendi ibilaldia.
Kalean daude atxilotutako gazteak.
10. **ZIZURKIL.**
Ongizateko laguntzak.
11. **ENPRESA.**
Amonarriz iturgintza.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Esperoan egon.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Joxan Agirrearekin solasean.
- 16-17. **KULTURA.**
Matriarkatua, mitoa ala errealitatea?.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ZER BERRI?/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia. Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



UDABERRIA!



TXOMIN GARMENDIA

Martxoaren 25'an asi naiz idazten eta 20'an Udaberriari sartu ginalarik, besterik etzat bururatzeko eta ea berriketaldi itxurazko bat erretzen zaidan.

Gaiñera, martxoaren 25'ta, irakutle askok ez badute jakingo ere, Amabirjiñaren eguna degu eta nolaz aaztu? Berrobi'n egun ori izan bai gendun "Komunio-Txikia" edo Lenengo Jaunartzea egin genduna zazpi urte genitula. Beste erritan ez dakit, baiña gure errian oitura ori zan Don Errikardo zanarekin. Astez egokitu edo igandez egokitu, Martxo-ko Amabirjiñez "Komunio-Txikia". Gaur ainbat lujo eta pesta-giro etzan Lenengo Jaunartzea zala-ta; "Aundia" berriz amabi urterekin, maiatzaren azkenengo igandean izaten zan eta gaur ere oitura ori dago Berrobi'n; jakiña, orain bakarria izaten dala orduko biren lekuan. Lujo aundirik gabe igaro genitun guk, nola bat ala bestea; orduan dotriña ikasteak ematen zun kezkarik aundierna eta ortan saiatzen ziran gurasoak eta apaizak. Gaur, dotriñan baiño arreta geiago ez ote degu jarzen, bazkaltzeko lekuan edo erregalitan? Gaur, ez da arritzeko, "Komunioa" nun duten galdera eginda, izen aundiko jatetxe baten izena erantzutea.

Beste esaera askoren artean, au ere erabiltzen gendun: Martxo-ko Amabirjiñez jotzen zula kukuak Erroma'ko Zubian eta andik zortzi egunera ez bazan azaltzen, beraren alde erregutu bear zala. Nere lantxo au argitaratzerako, emen izango degu noski, baiña norbait kuku orri entzun gabe baldin badago, saiatu dedilla patrikan dirua ibiltzen. Kukuari lenengo entzuten zaionean, patrikan dirua izan ezkeru, urte gutzian diru paltarik ez dala izaten bai dio esaerak baita ere.


Oiturak eta legeak bakarrik ez dira aldatu, bai giro eta denborak ere. Aurtengo Udaberria, martxoaren 20'a baiño ondotoxoz lenagorik gendula esan bear; otsailleko eta martxoaren aserako giroak, negukoak ez baiño udarakoak bai ziruditen. Orain, udaberria eta udara izan dituzela garaiak eskatzen dun bezelakoak, baiña badet naiko bildur.

Eta, Euskalerriko udaberriari begiratuta, orain arte esan ditudanak poztekoak badira ere, zer? Mendi, baso, zelai eta gaiñerakoak, bakoitza bere bidean alkar errespetatuz bizi berritzen zaizkigu eta gizakiok zer? Arturo Kanpion idazle sonatuak, euskaldunaren etsairik aundierna beste euskaldun bat zala esaten omen zun; garañ batean ez nun errez sistuko, baiña gaur bai, ikusi egiten degu-ta.

Pedro Mari Otaño, zizurkildar bertsolari aundiak onela kantatu zun:

Asko aurreratu da
baiña zertarako?
maitasunik ez bada
alkarrenganako,
atzaparrak dabilta
biurturik kako.

Atzaparrak kaketuta gabiltzan bitartean, naiz eguraldi aldetik giro onak izan, ez degu udaberrikerik izango.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera Departamenduaren laguntza jaso du.

ETA ZUK, BA AL DAKIZU ZER DEN EPIDURALA?

Epidurala emakumeari haurra erditu behar duen momentuan bizkarrezurrean injektatzen dioten anestesia da, eta beste zenbait ebakuntzetan ere erabiltzen dute anestesia hori. Anestesia honek emakumeak erditzean edukitzen dituen minak kentzen ditu, eta ondorioz, haurra edukitzea ez da hain mingarria izaten. Hala ere, anestesia hau erabiltzeko, batzutan, zenbait ondorio sortzen ditu. Horrek guztiak epiduralaren aldeko eta aurkako iritziak sortu ditu, eta guk gure eskualdeko bizilagunen iritzia jakin nahi izan dugu. Oharra: gizonezkoen iritzia jasotzea nahikoa zaila egin zaigu.



**ITSASO AGIRREGABIRIA,
IKASLEA. ASTEASU**

Ez, ez dakit zer den. (Epidurala zer den azaldu ondoren...) Ah, beno, entzun dugu zerbait bai anestesia horri buruz. Gure amek edota inguruko emakumeek hartu ote duten ez dakigu (erantzun digute berak eta bere lagunek).



**KARMEN IZAGIRRE,
LANGILEA. BILLABONA.**

Bere alde txarrak eta onak ditu, injektzioaren ondorenak jasan izan duenik ezagutzen dut; egoneza, hanketan kalen-break... Nik, adibidez, ez dut nire bi erditzetan epiduralik erabili, baina azken momentura arte ez dakizu erabiliko ote duzun edo ez; momentuaren arabera hartzen den erabakia da.



**MANEX AMEZTEGI,
IKASLEA. ANDOAIN.**

Anestesia bat da, eta nahiz eta emakumeek erditu behar dutenean jartzen dieten injektzioa bezala ezagutu, beste zenbait ebakuntzetan ere erabiltzen da anestesia moduan.



**ERKUDEN ALBERDI,
UMEZAINA. ZIZURKIL.**

Ez dakit zer den. (Epidurala zer den azaldu diogu eta...) Emakume bakoitzak erabaki behar du erditu behar duen momentuan anestesia hori jarri edo ez jarri.




**AMAIA ETXEBERRIA,
IKASLEA. ADUNA.**

Ez, idearik ere ez dugu (erantzun digute berak eta inguruko neskatilek). (Behin epidurala zer den azalduta...) Anestesia gabe umea edukitzea hobe izango da! (erantzun du neska batek) Emakumeak mina sentitzen duenean ondo iruditzen zait anestesia hartzea (erantzun digu Amaiak).



**ARANTXA ARZALLUZ,
IKASLEA. ANDOAIN.**

Emakumeek haurra eduki behar dutenean jartzen dieten anestesia. Ni, hala ere, erditze naturalaren aldekoa naiz.



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



JOSEBA
ALTZARIAK

Eskaintza bereziak!!

KALEAN, 6 ET. - TEL. 59 01 99 - ANDOAIN

APAIZ ETXEA ATERPETXE

Udalak apaiz etxea berritzeko lanak hasiko ditu udaran


Apaiz etxe zaharra goitik behera berrituko du udalak, eta horren ordainetan, apaiz etxearen garajea, solairu bat eta gela handi bat izan ezik, etxea eta inguruko lursaila udalari emango dio elizak. Aterpetxe bat egingo du udalak bertan, eta herriko taberna ere bertan ezarriko du. Horrezaz gain, egunero behar ditugun produktuak erosteko denda txiki bat izango dugu aterpetxe berrian.

Herriko apaiz etxea denbora luzean egon da hutsik, baina orain, etxea berritzeko lanak direla eta, etxea ez da bakarrik sentituko. Gainera, aterpetxea egingo dute bertan, eta beraz, jende askoren bisita izango du hemendik aurrera apaiz etxeak. Hala ere, ez dute etxe osoa aterpetxe bihurtuko; dotrina emateko lokalak ez dira faltako. Izan ere, elizak behar dituen gela handi bat, garajea eta solairu oso bat berarentzat izango dira aterpetxea egin ondoren ere.

Zerbitzuak egokitu

Egunero herriko tabernak ez du jatetxerik, baina egingo duten herriko taberna berriak jatetxea eta zerbitzu hobeak izango ditu. Era berean, egunero behar diren produktuak erosteko aukera izango dute herritarrek aterpetxean jarriko duten denda txikian.

Aterpetxea jendea Adunara etorri eta bertan lo egiten gelditzeko egingo dute. Taberna, jatetxea eta dendaz gain, lo egiteko leku bat eskainiko dute beraz Adunan. Hala ere, hurrengo urtearen amaiera arte edo, ez dugu bertan gaua pasatzeko aukerarik izango.



Apaiz etxe zaharra.

LARRAMENDI BAZKUNAREN BILTZAR NAGUSIA

Adunan egin zuten bilkura

Iazko ihardueren balantzea egiteko eta aurten nahiz etorkizunean egin asmo dituzten ekimenak zehazteko bildu ziren joan den hilean Adunako udaletxean Larramendi bazkuneko lagunak. Elkartearen estatutu batzuk aldatu eta gero eman zioten hasiera VI. Biltzar Nagusiari, eta oso bilera bizia izan zela esan digute bertako protagonistek.

Larramendi Bazkunak joan den urteko iharduera oso positiboa izan zela uste du, eta "elkartearen ihardunaren taupada finkatzea lortu dugu", adierazi dute. Izan ere, *Beterriko liburua* izeneko literatur aipamen berria hasi zuten iaz, urtero egingo duten literatur aipamena, baina zuzen. Hala ere, balantze guztiak ez dira positiboak. Larramendi Bazkunak 400.000 pe-

zetatoko zorra izan zuen iaz, eta hori elkartearen diru-iturri propioen %60a inguru da. Beraz, eta egoera aldatzen ez bada, zorra handiagotu egingo da, gainean eraman beharreko zama areagotuz.

"Gaudenak gaude"

1997. urteari begira, lehenik eta behin, *Beterriko liburua* literatur aipamenekin jarraituko dute eta *Euskara bihar?* soziolinguistika ikastaroa egingo dute. Era berean, Aiurri aldikariarekin aurrera jarraituko dute, eta orain, gainera, harpidetza kanpaina bati ekin diote elkarteko kideek. Izan ere, uztailetik aurrera Aiurriko harpide direnek bakarrik jasoko dute aldizkaria etxean; urtean 2.000 pezeta ordaintzen dutenek. Bestalde, asmoak baino bitartekoak falta zaizkielako, aukera


dutenean martxan jarriko dituzten hiru proiektu dituzte bazkuneko lagunek: *Kulturak elkarrengana* programa hementxo eta munduko kulturak elkar ezagutzeko; *Antzerkizaleak* izeneko egitasmoa antzerki amaterra bultzatzeko, eta azkenik, *Irigoiñen Azpiko etxea*, Andoingo ospitale zaharra, euskalgintzaren gune bihurtzeko proiektua.

Bazkunak eskualde osoan 114 bazkide baldin baditu ere, oso bazkide gutxi dira bileretara eta ekintza ezberdinetara agertzen direnak. Dena den, argi dute azken biltzarran bildutakoek direnek direla, eta oraingoz, erabaki duten lan-programa aurrera eramateko beraiek bakarrik dardela. Hala eta guztiz ere laguntzaile gazteak lortzeko kanpainaren bat edo beste burutuko dute udazkenean.

GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOA

Kontsumitzaileen bulegoa izandako lokalean ezarriko dute bulego berria

Gazteria batzordeak gazteei zuzendutako informazio bulegoa ireki nahi du, eta hori egin ahal izateko jada egin dio eskaera Gipuzkoako Diputazioari. Diputazioak baimena eman ondoren bulegoa martxan jartzeko eta bertan lan egingo duen langilea kontratatzeke lehiaketa publikoa egingo dute.



Ondarreta kaleko bulego zaharretan jarriko dute bulego berria.

Berri-Aiztondo bailaran jarriko duten lehenengo informazio bulegoa izango da. Gazte informazio bulego horren lana gazteei buruzko informazio guztia jaso, katalogatu, artxibatu eta jendeari eskuragarri jartzea izango da. Jone Iturrioz batzordeko langilearen esanetan informazio bulego honek garrantzi handia du: "Gazte orori zuzenduriko doaneko zerbitzua izango da. Andoainen, adibidez, 5.000 gazte inguru daude, eta bulegoan informazio mota ezberdina jaso ahal izango dute gazte horiek. Bidaian, eskola matrikulazioen, beken edota informazio orokorragoaren berri emango dute bulegoan".

LANGILE BAT KONTRATATUKO DUTE

Informazio hori guztia eskainiko duen langilea lehiaketa publiko baten bitartez aukeratu dute. Bere lana Gipuzkoako Diputazioak eskaintzen duen informazioa azaltzea eta besteak beste, bulegoaren sarreran ezarriko den taula informatiboa eguneratzea izango da. "Gazteei informazioa ematea nola informazioa lortzen erakustea dira bulego horren helburu nagusiak".

Bulegoa goiz eta arratsaldez izango da zabalik.

TOLOSAKO GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA

Tolosako gazteentzako informazio bulegoko arduraduna den Angel Alonsoren hitzetan horrelako bulegoetan eskaintzen den informazioa zabala da oso: "Hezkuntza eta aisialdiari buruzko informazio eske etortzen dira gazte gehienak. Eskatutako informaziorik ez badugu informazio hori lortzen saiatzen gara". Tolosako gazteen informazio bulegoa Gipuzkoan jarri zuten lehenetakoa izan zen, eta hainbeste urteren ondoren bada oraindik zerbitzu horren berririk ez duenik: "Batzuk astero etortzen dira, beste batzuk berriz noizbehinka. Hala ere, gure nahia herritar guztiengana iristea da".

UDALEKUAK GOIZUETAN

Buruntzaldeko mankomunitateko udalak hasi dira uztaileko udalekuak prestatzen, eta Goizuetan egingo dute udalekua urteroko legez. Gauzak horrela, aurtan, zazpi egunetako lau txanda ezberdin egingo dituzte. Udalekuetara joan nahi duten gazteek apirilaren 14tik maiatzaren 9a bitartean eman behar dute izena Allurralde kiroldegian. 12.500 pezeta ordaindu beharko ditu bakoitzak, eta izena ematean matrikulazio orria betetzeaz gain gizarte-segurantza txartelaren fotokopia aurkeztu beharko du.

**LERTXUNDI
HARATEGIA**



Alkorta-enea etxea - ☎ 69 18 76

SANATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Kale Nagusia, 28 - Tfnoa.: 69 40 63 -Billabona

ISKANBILAREN OGIA

Okindegien arteko tirabirak

Orain arte, igandero, ogia hiru okindegien artean txandaturuz erosi ohi zuten herritarrek. Kaletxiki, Arratibel eta Beraza okindegiek hiru astetik behin egiten zuten ogia. Orain, ordea, astebururo bi okindegik egiten dute ogia, (Kaletxikikoak bakarrik egin behar duenean izan ezik) eta beraz, ogi hori guztia saltzeko eta nork gehiago saltzeko, ogiaren prezioa jaitsi egin da igandeetan.

Beste herrietan okindegia ugari eta ogi mota ezberdinak erosteko aukera izan arren, Andoainean, orain artean behintzat, ogia denda ezberdinetan txandaka erosten zen igandean. Duela hilabete, ordea, horrekin bukatu nahian, Kaletxikiko okindegia ogia igandero egitea erabaki zuen, nahiz eta igandero berari egitea ez egokitu. Kaletxikiko okindegia ogia igandero egin nahi duen bitartean, Arratibel eta Berazak orain arte bezala jarraitu nahi dute.

Hori konpontzen ez den bitartean, igandero (Kaletxikiren txanda denean izan ezik), bi okindegik jarraituko dute ogia egiten; aste horretan ogia egin behar duen okindegia eta Kaletxikikoak. Horren ondorioz, igande horietan ogiak 75 pezeta balio ditu.

HIRU OKINDEGIREN IRITZIAK

➔ *Arratibelen* esanetan ogia igandeetan txandaka saltzea hiru okindegien eta udalaren artean hartutako akordioa da: "Merkatuan bakoitzak bere onurarako dena egin behar du. Eusko Jaurlaritza, adibidez, merkatuaren liberalizazioa maila guztietara zabaldu nahian dabil, eta horren aurrean dendari txikiok espezializatu egin behar dugula diote. Beraz, Kaletxikiko okindegia bide hori jarraitu duela uste dut, dendari txikiok etorkizuna nahikoa beltza baita. Horren ondorioz, lana igandero egin eta hala ere irabazi gutxi lortzen dira".

➔ *Beraza okindegia*ren ustez, Kaletxikiko okindegia beraien artean hitzartutako konbenioa hautsi nahian dabil: "Andoaingo okindegien arteko hitzarmen hau Gipuzkoa osoan zegoen akordio bakarra dela uste dut. Orain ez dakit zer gertatuko den edota zein irtenbide bilatuko diogun auziari".

➔ *Kaletxikiko okindegia* berriz, bere erabakiarekin ez duela inor mindu nahi azpimarratu digu: "Igandeetan ogia txandaka egitea aspaldi hartutako erabakia da, eta gaur egun zentzurik ez duen akordioa dela uste dugu. Gure asmoa ogi mota anitzagoa eta zerbitzu hobea eskaintzea da. Ez dugu gehiago saltzeko asmoz egiten. Erabaki hau herriaren onerako eta gure enpresaren onurarako izango delakoan gaude".

LEHENENGO GAZTE UDABERRIA

Apirilaren lehen astean egin dute

Gazteria Batzordeak eta herriko zenbait elkarter antolatutako Gazte Udaberri 97an herriko gaztetxo asko hartu dute parte. Gazte Astearen jarraipena den ekimen horretan, kirola eta aisialdiko ekintza ugari egin dira. Hamabi eta hamazortzi urte bitarteko 180 lagunetik gora bildu ziren kirola egitera, Leitzarain bailara garbitzera edota besteak beste, filme bat ikustera. Futbola, Olinpiadak, futbolina eta ping-pong-a izan dira ekintzarik arrakastatsuenak. Carlos Argilea hezitzailearen hitzetan, herritarren parte hartzea oso ona izan da: "Opor egunetan lagunekin ibiltzeko edota bestelako ekintza interesgarriak egiteko aukera paregabea izaten da. Pozik gaude herritarrek ekimen honi egingutako harreragatik".



Haurrak jolasean.

SOTO
elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g. BILLABONA
☎ 69 11 7

LoAtzo

LANPARRAK ALIZARIAK
TOLIXOIAK OPARRAK

Errota kalea, - 3 ☎ 69 21 35 BILLABONA

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162
ANDOAIN

ZINE ETA DANTZALDI EMANALDIAK

Gazteria batzordeak antolatu ditu ekintza guztiak

Herriko gazteek beren asti librean burutzeko aktibitate gutxi dituztela eta, gaztetxoenei zuzenduriko programazioa jarri du martxan Udaleko Gazteria batzordeak. Ekintzarik nagusienak, hilabetero antolatuko duten dantzaldia eta Goikoplazan eskainiko diren filmeak izango dira.

Hamaika eta hamasei urte bitarteko gazteci asteburuetan egiteko gauza ugari eskainiko dizkie programazio horrek. Gazteria batzordeko langilea den Jone Iturriozek azaldu digunez, adin horretako gazteek ezin dute aktibitate askotan parte hartu eta horregatik ezarri dute programazio hori: "Ez dira tabernetara joaten edota ez dute diru sarrerarik bestelako aktibitateetan parte hartzeko. Beraz, plazan eserita egon beharrean zinema ikustea eta dantzaldietan parte hartzea ideia ona iruditu zaigu".

Dantzaldiak

Dantzaldiak hilean behin egingo dira, igandetan, arratsaldeko 18:30etatik 21:30etara, Goikoplazan eta Bekoplazan. Uztaila eta abuztuaren udako oporraldia dela eta, ez da dantzaldirik izango. Ezarritako egunen eta musika taldeen ordena oraindik ez da zehaztu; hala ere, lehen dantzaldia apirilaren 20an izango da.

Zinema

Egun, herritarrek ez dute Andoainen zinemara joateko aukerarik, eta Bastero egin bitartean zinema emanaldiak eskaintzea erabaki du Gazteri batzordeak. Uda partean eskainiko dira Goikoplazan, pantaila handi batean. Eguraldi txarra egingo balu filmea beste egun batean emango da. Oraingoz aukeratu diren filmeak hauek dira:

"El primer caballero"
"La llave mágica"
"Leyendas de pasión"
"La señora Doubtfire"
"Lady Halcón"



Ostiral Santua

Buruntza eta Goibururua mendietan kalbarioak egin ziren

Aste Santuan egiten diren elizkizunetz gain, Ostiral Santuan herriko mendietan egiten diren kalbarioak ere urteroko ohitura bilakatu dira. Horrela, Andoainen, Buruntza eta Goiburura bidean eginiko kalbarioetan herritar askok hartu zuten parte. Buruntzan adibidez, 100 lagunetik gora bildu ziren.



ARGAZKI GELA

Ikastaroak egingo dituzte gela erabiltzen hasi aurretik

Argazkiak errebelatzeko laborategi bat egin dute Pello Errota ikastetxean. Bertan, argazkiak errebelatzeko behar den material guztia dago, bakoitzak bere argazkiak egiteko behar duen material konkretua izan ezik: 2 handigailu, ontzia eta argazkiak errebelatzeko behar diren likidoak, ordea, laborategian daude. Gela eskolako ikasleek eta herritarrek erabili ahal izango dute, eta laborategiaren funtzionamendua ezagutzeko ikastaroak egingo dituzte herritarrentzat argazki gelaren ateak ireki aurretik.



Haur eta herritarrentzako gela.

Ikasleek eskola orduetan erabiliko dute argazki laborategia, eta herritarrek berriz, ikasturteak iraun bitartean behintzat, arratsaldeko bostetatik bederatzietara erabili ahal izango dute. Udaran, ordea, goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara erabili ahal izango da laborategia.

Argazki gela egiteko lanak udalak egin ditu, eta orain, laborategia nola erabili jakiteko ikastaroa egingo dute. Iñigo Royok emango du ikastaroa, ikastetxeko irakasleei ikastaroa eman dien irakasleak hain zuzen. Izan ere, euren ikasleei argazkigintza erakusteko, ikastaro bat egin dute Pello Errota ikastetxeko irakasleek. Ikastaroan zehazki zer erakutsiko duten zehazteke dagoen arren, ziurrenik, laborategia erabiltzeko ikasi beharreko kontuak eta argazkiak ateratzeko zenbait teknika orokor landuko dituzte.

Gela erabiltzeko eskaerak

Argazki gela erabiltzeko baimena Kultur Etxean eskatu beharko da. Gela erabili nahi den eguna baino 2 egun lehenago eskatu behar da baimena. Gelaren giltza Kultur Etxean egongo da, eta gela erabili eta berehala bertan utzi beharko da giltza.

Laborategia noiz irekiko duten ez dute zehaztu, baina hil honetan izango dela aurreratu digute.

HILERO BAT
GUTXIAGO
JANEZ GERO ...



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

VIDEO CLUB



Bideo zintak alokatzen dira
CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

XXIX. MENDI IBILALDIA

9 orduko mendi ibilaldia egin zuten joan den igandean

Billabonako Aizkardi mendi elkarteak antolatuta XXIX. mendi ibilaldia egin zuten joan den igandean. Goizeko zazpietan irten zen lehenengo taldea, eta 260 lagun inguruk hartu zuen parte guztira. Diploma besapean zutela eta opari bat baino gehiagorekin bueltatu ziren mendizaleak etxera.



Ez zuten pezeta bat bera ere ordaindu behar izan mendi ibilaldian irten ziren mendizaleek. Billabonan bildu ziren ibiltariak, eta bertatik Adunara jo zuten goizeko lehenengo orduetan. Belkoain mendia igo zuten lehenik, eta Andatza ondoren. Bi mendi hauek 500 metro inguruko altuera dute. Andatzatik Lasarteko hipodromo aldera joan ziren gero ibiltariak, eta Andoainera joan ondoren, Besabi, Adarra eta Onddo mendiak igo zituzten hurrenez hurren. Azkenik, Leitzaran bailaratik barrena, Billabonara heldu ziren mendizaleak arratsaldean.

Ibilaldia amaitzea lortu zutenek Aizkardi mendi elkarteak banatu zituen agiri bana jaso zuten, eta ondoren, arratsaldeko seietan, mendiko materiala zozketatu zuten mendizaleen artean. Material hau Billabona eta Zizurkilgo dendari eta tabernariak eskaini zuten.

LAGUNTZAILEEI ESKERRAK

Aizkardi mendi elkarteak eskerrak eman nahi dizkie ibilaldia antolatzen lagundu duten guztiei, eta batez ere Behar Zana, Irrintzi eta Zunbeltz elkartei. Elkarte hauek izan ziren mendizaleei salda, fruta, edaria eta jaki gehiago eskaini zieten elkarteak.


OHARRAK

• ZABORRA EZ ORDAINTZEKO ESKAERAK

Hilero gutxieneko soldata irabazten ez duten familiek zaborra biltzea kostatzen den diru-kopurua ez ordaintzeko aukera dute horrela eskatuz gero. Udaletxera jo beharko dute baldintzak betetzen dituzten familiek apirilaren 17a baino lehenago.

• LIBURUTEGIKO BAZKIDEAK

Udal liburutegia datu guztiak informatizatzen ari da, eta orain, bazkideen datuak informatizatzeari ekin diote. Beraz, bazkide baldin bazara edota bazkide izan nahi baduzu jo ezazu liburutegira txartel berriaren bila.



ORTE
CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17



ORMAKI
URDAITEGIA

**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923



HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Amalia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxa 39 37 34

VNAI

oinetakoak

Kale Nagusia, 12
Billabona
☎ 69 12 61

UME ETA
GAZTEENTZAKO
ONETAKOAK

KALEAN DAUDE ATXILOTUTAKO GAZTEAK


Egunero joan behar dute Ertzaintzaren egoitzara

Aske gelditu dira martxoaren 17an herrian atxilotu zituzten Axier Villarroia, Iban Agirre eta Aitor Gonzalez gazteak. Era berean, Zaldibian atxilotu (lan egiten duen herrian) baina berez zizurkildarra den Aitor Oiartzabal ere aske utzi zuten. Polizia Nazionalak atxilotu zituen guztiak, eta ETaren aldeko "Y" taldearen partaide izatea leporatu zieten gazteei. Hiru egun igaro zituzten atxilotuek poliziaren komisaldegian, eta bertan jasan zituzten tratu txarrak salatu dituzte gazteek behin aske gelditu eta gero.

Aipatu ditugun lau gazte hauek atxilotu eta euren etxeak miatzeaz gain, Billabonako beste bi gazteren etxeak miatu zituen poliziak gau berean, baina kasu horietan ez zituen bila ari ziren bi gazteak etxean aurkitu. Atxilotuak Donostiako Gobernu Zibilera eraman zituen Polizia Nazionalak eta bi egunez eduki zituzten bertan Madrilgo Audientzia Nazionalera eraman aurretik. Bi egun horietan inkomunikaturik egon ziren atxilotuak, eta beraz, gazteen familiek ez zuten euren senitartekoen berririk eduki. Egun hauetan galdeketa ugari egin zizkietela adierazi digute atxilotuek, eta galdeketetan jasadako tratu txarra gogor salatu dute, "heriotz mehatxuak, umilazioak eta golpe ugari jasan ditugu komisaldegian", esan digute. Gainera, Audientzia Nazionalako Ismael Moreno juezaren aurrean deklaratu zutenean ez zieten utzi konfidantzazko abokatuarekin deklaritzen. Juezak guztien baldintzapeko askatasuna agindu zuen, baina egunero Tolosako Ertzaintzaren egoitzara aurkeztu beharko dute gazteek juizioa egin bitartean.

"Ez zuten inolako akusaziorik"

Atxilotuen senitartekoek esan digutenez, ez zuten inolako akusaziorik gazte hauek atxilotzeko. Izan ere, gazteak atxilotu zituzten biharamuncan familiarrak, Joxi Mujika alkatea eta Billabonako nahiz Zizurkilgo udal ordezkari batzuk Donostiako Gobernu Zibilera joan ziren atxilotuen berri edukitzeko. Bertan, Gobernu Zibileko idazkariarekin bildu ziren eta gazteen aurka inongo akusazio konkreturik ez zegocla esan zieten familiarrei; gazte hauek susmo batzuegatik atxilotu zituztela esan zieten. Senideek, beraz, gogor salatu dute beren senitartekoak inongo akusazio konkreturik gabe atxilotzea eta inkomunikatzea. Era berean, etxean poliziak aurkitu zuen materiala herritar ororen etxean egon daitekeela adierazi zuten. Izan ere, mendira joateko camping gas bonbona bat, agenda elektronikoa bat eta, besteak beste, litera batzuk eusteko torniloak eraman zituen poliziak atxilotuen etxetatik.



Atea hautsi zuen poliziak gazte bat atxilotu zuen etxean.

**HILERO BI
GUTXIAGO
HARTUTA...**



ONGIZATEKO LAGUNTZAK

Herritar asko joaten dira informazio bila Ongizate bulegora

Zizurkilgo laurogei familia inguruk jaso zuen iaz pobreziari aurre egiteko Ongizate batzordeak banatzen dituen dirulaguntzak. Laguntza horrezaz gain, etxez etxeko laguntza zerbitzua edota bono-taxi zerbitzua jaso zuen herritar kopurua ere ez da makala izan. Urte honi dagokionez berriz, elbarriak integratzeko ekimena eta eskolako haurrekin landuko duten prebentzio kanpaina jarri nahi dute martxan.

Lehen aipatu dugun bezala, 80 familia inguruk jaso du pobreziari aurre egiteko Ongizate batzordeak banatzen dituen dirulaguntza ezberdinak. Familia bakoitzak, bere egoera aztertu ondoren, egoera hobetzeko beharrezkoa zen laguntza mota bat jaso zuen. Etxez etxeko laguntza 21 familiek jaso zuten bitartean, 6 familia izan ziren bono-taxi zerbitzua erabili zutenak. Laguntza horietaz gain, lanbide hastapeneko ikastaroak eskaini zaizkie herriko langabeei.

1997ko egitasmoak

Elbarriak integratzeko xedearekin euren aisia eta heziketa lantzeko proiektuak jarriko dituzte martxan. Gainera, Uliazpi fundazioarekin harremanak izango ditu aurrerantzean Zizurkilgo Ongizateko batzordeak. Era berean, eskolako haurrak alkohola eta drogen inguruan prebenitzeko kanpaina bat burutuko dute eskolako irakasle eta gurasoekin batera. Azkenik, emakumeen autoestima eta formazioa lantzeko ikastaroak jarri dituzte martxan.



Hodiak pasatzeko zuloak egiten.

GAS PROPANOA JARTZEKO LANAK

**Bigarren faseko
lanak ari
dira egiten**

Zizurkil goian gas propanoz beteriko biltegi handi bat jarri dute frontoiaren atzean. Biltegi horrek Zizurkil goiko herrigune guztia hornitzea du helburu, bizilagunek horrela nahi baldin badute behintzat. Lehenengo fasean Udaletxea, Triarte etxea eta inguruko etxeak hornitu zituzten, eta orain berriz, hamar bat etxetan ari dira gas propanoa jartzeko lanak egiten. Gasa biltegitik etxeraino eramateko hodiak jartzeaz gain, kontadoreak ari dira jartzen etxe horietan.

Larraul


AMONARRIZ ITURGINTZA

Ugalde baserrian dago iturgintza tailer berria

Amonarriz iturgintzak Larraulen du egoitza. Ehun lagunetik gorako herri txiki honetan nekazaritza nagusi den arren, bada bestelako langintzarik. Amonarriz iturgintza dugu horren adibide.

Amonarriz iturgintzako buru eta langilea den Joxe Mari Amonarrizek azaldu digunez, batek baino gehiagok ez daki Larraul non dagoen ere: "Jende askok Nafarroarekin lotzen du Larraul, edota beste batzuk berriz, iturgintza tailerra Larraul bezalako herri batean egoteak asko harritzen ditu. Hala ere, igeltsero edota horrelako lanetan dabilen jenderik bada Larraulen".

Iturginaren lana gasa eta berogailua jartzea, sukaldeak eta komunak egitea, teilatuetan kanaloiak ezartzea edota matxuraturik dagoen ur-tresneria konpontzea da. Joxe Mari hamazortzi urte daramatza iturgin gisa lanean: "Mutitil koxkorra nintzela hasi nintzen lan honetan. Urte askotan beste batentzat lan egin dut, eta orain dela lau urte hasi nintzen nire kabuz lanean. Nirekin batera gazte bat ari da lanean". Iturgintza ikasteko ikastaroak egin ditu Amonarrizek, izan ere, ikasketak egitea ezinbestekoa da lan horretan aritzeko.



Leku batetik bestera ibiltzen da lanean Joxe Mari.

Joxe Mari Ugalde baserrian bizi da eta bertan jarri du bulegoa eta tailerra. Oraingoz, ez du dendatik jartzeko asmorik, eta hori egitekotan toki egoki batean jarriko luke.

LANA BEZEROEN ARABERA,

Bere bezeroak etxe partikularrak izan ohi dira. Beraz, beren zerbitzua eskatzen duten etxeetara joaten da Joxe Mari Amonarriz. "Deitzen didaten lekuetara joaten naiz: Donostiara, Tolosara, Andoainera, Azkoitia... Iturgintza bezeroen arabera egiten den lana da".

Lan garrantzitsu eta handietarako, bezeroek, iturgin ezberdinei aurrekontua eskatu ohi diete, "aurrekontu ezberdinen artean egokiena aukeratzeko".

Lan txikietarako berriz, ezaguna den iturginari deitzen ohi zaio. Horregatik da garrantzitsua bezeroarekin eta beste gremioetako langileekin harreman onak izatea: "Bezeroekiko arreta izatea eta harreman onak mantentzea ezinbestekoa da guztiz. Izan ere, bezeroak dira gure lanaren ardatz nagusia".

Ordu-tegiari dagokionez, lan ordu batzuk ezarri arren, lanaren arabera egiten dute lan. Iturginaren faktura aurrez ezarrita duten tarifa eta eskulana- ren arabera izaten da. Beharpenak egiten dituztela onartu arren, bezeroa ez da beti irabazten ateratzen: "Deskontuak egin ohi dira, baina deskontu hori eginda ere gerta daiteke lanaren kostu hori beste iturgin batena baino garestiagoa izatea".

Ingeliseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)



BORDA
Jatetxea
ANDOAIN



Astean bitan izaten dituzte klaseak.

Esperoan egon

Bizitza berri baten hasiera

Emakume bat haurdun geratzen denean aldaketa handiak izaten ditu bere eguneroko bizi-moduan. Askok, haurdunaldia erditzearekin lotzen dute segituan, baina hori haurdunaldiaren atal bat baino ez da. Emakume bat haurdun geratzen denean elikadura, erditu behar duenerako prestakuntza, haurra hezitzeko modua eta hamaika gauza gehiago ditu buruan. Gauzak horrela, ama izatea eta ez da gauza erraza, eta alde zaurretik gaiari buruz ezer gutxi dakigunez, denborarekin ikasten den ofizioa da amatasuna.

Azken urteotan haurren jaiotze tasa jaitsi egin den arren, emakume haurdun asko ikusi ahal izaten dugu gure herrietan. Haurdun dauden emakume horiek, abantaila ugari dute garai bateko emakumeekin konparatuz gero. Izan ere, gaur egun erditu behar dutenean egin behar dutena ikasten dute, prestakuntza teoriko eta praktikoak izaten dituzte, eta gainera, erditzeko aukera ezberdinen berri dute. Haurdunaldiaren inguruko gorabeherak haurdun geratzen garen momentuan hasten gara ikasten, baina lerro hauen bidez gai hori irakurle guztiengana zuzendu nahi izan dugu, izan ere, ez baita txantxetako gauza haur bat edukitzea.

HAURDUNALDIAREN LEHEN HILABETEAK

Emakume haurdun batek haurdunaldia ondo eramaten ari dela ziurtatzeko azterketa mediku ugari egin behar du; hilabetero azterketak egin behar ditu. Errebisioez gain, seigarren

hilabetetik aurrera erditze momenturako prestatzen hasiko da. Horrela, haurdun dauden beste emakumeekin batera prestakuntza teoriko eta praktikoak egiten ditu. Anabel Fernandez emaginak azaldu digunez oso garrantzitsua da prestakuntza hori: "Emakumeek beraien aukeratzeko dute zein gai aztertu, eta gero, batek ikertu eta prestatu ondoren, besteei azaltzen die gaia. Horrez gain, erditzerakoan arnasa nola hartu behar den, gimnasia eta erlajazio arketak, haur jaio berriaren zaintza, erditzea eta erditze osteko momentua..., haurdunaldiaren inguruko informazio guztia eskaintzen saiatzen gara klase horien bidez". Klase horien azken helburua, emakumea erditze uncrako prestatzea da. Hau da, erditzeari beldurra galtzea, lasaitzea eta beren buruarekin seguru sentiaraztea.

ERDITZEA

Haurdunaldiaren azken etapa da eta hiru azpiataletan zati daiteke momentu hori. Emakumea erditzen hasi dela esateko 3 cm-ko dilatazioa eduki

behar du, eta horrez gain, umetokiko kontrakzioak erregularrak eta aldizka-koak izango dira.

Erditzearen lehen etapa dilatazioa 10 cm-koa denean gertatzen da. Momentu horretan umea jaiotze-kanaletik behera jaisteko prest dago. Bigarren etapian, umetokiaren lepoa guztiz zabaldua, umea irriten hasten deneko momentua da. Hirugarren etapa berriz, umea jaio ondorengo minutuak dira. Umezoroo ateratzen da azken etapa horretan.

"Haurra jaio ondorengo momentua oso garrantzitsua den arren, ordu batzuk beranduago ekartzen zaio haurra amari"

Erditzeko garaian, ordea, emakumeak aukera ezberdin batzuk ditu. Normalean, emakumea erresidentziara joaten da haurra edukitzera, horretarako ondoren prestatuak dagoen egoitza delako. Hala ere, badira etxean erditzea erabakitzen duten emakumeak, gutxi batzuk izan arren. Holandan, adibidez, emakume gehienak etxean erditzen dute, gure inguruan berriz, ez dago erditzeko garaian aukera askorik. Haurrak uretan jaiotzea posible da baina Anabel Fernandez emaginaren esanetan osasun zentroek ez dizute aukera hori eskeintzen. "Os-pitaletako arauak bete behar dituzu, eta beraz, bertan erditzera joaten bazara modu bakarrean egin dezakezu. Epidurala eskatzeko aukera baino ez duzu, eta gainera, askok, epiduralaren inguruan dituzten uste faltsuak direla eta, ez dira epidurala eskatzera ausartzen. Horrezaz gain, umea jaio eta lehen momentuak amarekin egotea oso garrantzitsua da, baina egun, umea jaio eta ordu batzuk beranduago ekartzen zaio amari."



ERDITZE OSTEA

Erditze osteko lehenengo egunak gogorak izaten dira amarentzat. Erditzerakoan izugarriko indar fisiko eta morala egiten denez, ama indargabeturik eta motibazio gabe senti daiteke gero. Hala ere, erditze ostea aldaketa handiko aldia da, eta egoera horretara piskanaka egokitu behar da. Gerta daiteke mina sentitzea, odola galtzea, molestiak sentitzea edota hemorroideak izatea. Hori guztia normala da.

"Amaren bularreko esnea izoztu daiteke gero haurrari emateko"

ESNEA EMATEA

Egun, emakume gehienek bularra ematen diote haurrari. Abantaila asko ditu bularra emateak, merkeagoa, osasungarriagoa, eta umearekin duzun kontaktu fisikoa handiagoa da. Egun, haurra izan eta emakume asko lanera itzuli beharrean aurkitzen dira laugarren hilabetean, hori dela eta, egunetik egunera, emakume gehiago dira beren esnea izozten dutenak. Izan ere, ama lanean egon arren haurrak amaren esnea hartzeko aukera du esnea izozten badu.

Hala ere, eta aspaldiko usteak uxatu nahian emakume izateko ez da derrigorrez ama izan behar. Haurrak ez izatea erabakitzen duten emakume askok kritika ugari entzun behar dituzten arren, bakoitza libre da bere erabakia hartzeko.

EPIDURALA


Anestesia epidurala erditzearen lehenengo etapan ematen da. Hau da, gutxienez 3 cm-ko dilatazioa izatea beharrezkoa da injekzioa jartzeko. Bizkarrezur inguruan dagoen tartean jartzen den injekzioa da.

Epiduralak gerritik beherako sentikortasuna kentzen du, eta beraz, minik ez du izaten emakumeak. Hala ere, gertatzen den guztiaz ohartzen da emakumea. Baina kontrazioak ia sentitzen ez direnez, haurdun dagoen emakumeak ez daki noiz bultzatu behar duen. Hala ere, emaginak esaten dio noiz bultzatu emakumeari.

ZESAREA

Umearen burua amaren pelbisea baino handiagoa denean, umea zeharka datorrenean edota bestelako egoera baten aurrean zesarea egitea beharrezkoa izaten da. Horrela, amaren sabelaldean egiten den ebakuntza horizontal edo bertikal bat eginda jaioko da haurra.

Azkenaldian haur asko jaio dira.



Orremendi Kirolak

**AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN**

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN

Joxe Ramon
TABERNA

PINTXO EDERRAK!!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

“Elgeta garaiko gizon moderno bat izan zen”



Joxean Agirre

Elgeta liburua izan da 1996. urteko Beterriko liburua. Joxean Agirre idazle azpeitiarraren liburua da Elgeta, eta beste bi liburu gehiago idatzi ditu aurrez Egin egunkariko kulturako orriak betetzen dituen kazetari-idazle honek. Irun saria jaso zuen iaz liburua, eta beraz, ez du idazlea behar adina baino gehiago harritu Beterriko liburuaren saria jasotzea. Liburuaz galdetzeko, bertako protagonista den Elgeta trikitilariaren gora beherak jakiteko, eta nola ez, idazlearen berri izateko Joxean Agirrerekin bildu gara.

Aiurri: Nor izan zen Elgeta trikitilari?

Joxean Agirre: Guraso ezagunik ez duen pertsonaia da Elgeta, 1906an jaio zen eta Zizurkilgo Fraisoro etxean utzi zuten umetan. Intsuzabal baserrian hartu zuten gero, baina oso gazte zela Eibarrera joan zen lanera. Bertan sozialista bihurtu zen. Gerran ere hartu zuen parte, eta ondorioz, Ondarretan preso eduki zuten. Behin gerra amaitu ondoren hasi zen Elgeta baserri trikitixa irakasten. Lehenengo trikitilari profesionala izan zen Elgeta, tabakoa eta xoxa batzuren trukean etxe batetik bestera ibiltzen zen trikitixa irakasten. Aste batean etxe batean edo hurrengoan bestean bizi izan zen Elgeta. Sakabi, Maltzeta eta trikitilari gchiagok osatzen dute Elgetarekin ikasi zutenen trikitilari belaunaldia.

Zergatik berari buruzko liburua? Berari buruzko biografia al da?

J.A.: Ni, liburua idazteko okurrentzia izan nuenean, duela lau edo bost urte inguru, jazz musikako Joe Parker eta antzeko musikarien biografiak irakurtzen ari nintzen. Bertan, alde batetik bestera sustrairik eta euskaririk gabe bizi ziren gizonak agertzen ziren, alkohola, gaua... Garai hartan trikitilariaren elkarteko lehendakari zen Esteban Larrañagak ezaugarri horiek guztiak biltzen zituen trikitilari baten berri eman zidan, Elgetarena. Elgeta familiarik, lanik eta antzeko euskaririk izan ez zuen norbait izan zen. Elgetak musika bakarrik zeukan berea, bere helduleku bakarra soinua izan zen. Beraz, baserri eta trikitilari giroko pertsonaia moderno bat izan zen Elgeta. Inongo euskaririk gabeko bizitza bat da liburuan azaltzen dudana, heldulekurik gabe bizitzeak suposatzen duena.

“Elgetaren helduleku bakarra musika izan zen”

Azalduiguzu liburuaren edukina hiru hitzetan.

J.A.: Liburuan Elgetaren garaia, bere bizitzeko era modernoa eta maitasun istorio bat kontatzen dut. Liburuaren istorioaren oinarria Elgetaren benetako bizimodua izan den arren, jazoera gehienak nik asmatutakoak dira. Elgetak, adibidez, andregairik ere ez zuen izan, nahiz eta emakume askorekin ibiltzen zela zioten. Hala ere, berarekin batera panderoa jotzen zuen neska batekin nolabaiteko amodiozko konturen bat izan zuen. Baina amodiozko istorio frustratu bat bizi izan zuten biek, ez ziren elkar maitatzeko kapazak izan. Liburuan maitasun kontu hori, Elgetaren bizimodua eta elementu gehiago erabili eta nahasten ditut. Elgetaren bizitza eta nire asmakizunak tartekatuta eta nahastuta idatzi ditut liburuan.

Nahikoa liburu deskriptiboa da, ezta?

J.A.: Argazkilari baten ikuspuntutik kontatzen dira liburuako pasadizioak, nahikoa kontakizun deskriptiboa egiten dut beraz. Izan ere, liburuaren trama nahikoa ahula da, nik nire istorioak modu deskriptibo batean kontatzeko joera baitut. Hau da, gertatzen dena baino ingurua nola dagoen, bertan gertatzen diren gauza txikiak eta antzekoak kontatzen ditut; irudiak kontatzen ditut, argazkiak. Horregatik, beharbada, liburua piska bat aspergarria izan daiteke, gauzak oso lasai kontatzen baititut.

Zer protagonismo du trikitixak liburuan?

J.A.: Elgetaren garaiak trikitixa krisian dago. Gerra aurretik nahikoa egoera onean zegoen, Gelatxo trikitilariak, adibidez, erromeria askotan jotzen zuten, alde batetik bestera ibiltzen zen Francoren omenaldietan jotzen. Baina Elgetaren garaia trikitixaren garai txarra da. Erromeria gutxiago egiten ziren jada, eta trikitilari batzuk soinu txikia utzi eta handia jotzen hasiko dira. Trikitixa, jada, ez da mendiko musika izango eta kalera egokitu beharko du.

Aipatu beharra dago, bestalde, Elgetak trikitixa munduan egin zituen berrikuntzak. Izan ere, soinuari tekla gehiago jarri zizkion zenbait nota berezi edukitzeko. Gainera, dantzarako pieza ugari asmatu zituen.

Txertatu al dira trikitixa bezalako arteak gure gizarte modernoan?

J.A.: Gaur egungo gizartean nahikoa ongi txertatu dira gure arte tradizionalak. Ikusi besterik ez dago Gozategik jotzen duen trikitixa zenbat entzuten den. Hala ere, komunikabideok, baditugu zenbait konplexu gure arte tradizionalaren inguruan. Izan ere, eta beste zenbait musika estiloetan bezain aurreratuak egonik ere, trikitixari buruzko erreportaia on bat gauza folkloriko bat dela uste dugu. Elgeta dugu horren adibide, garaiko edozein artista moderno bezalaxe bizi baitzen, alde batetik bestera, familiarik, maitasunik eta ehortzeko lurrik ere ez zuela. Musika bakarrik zuen. Oso gauza miresgarria da niretzat zerbaitetara dedikatzen beste guztiari errenunziazten dion pertsonaren jokabidea.

**“Gauza bat egiteko
beste guztiari
uko egitea
miresgarria da”**

Kazetari zara lanbidez; idazle berriz, denbora librean?

J.A.: Afizionatu baten moduan idazten dut, denbora librean dudanean.



Elgeta trikitilari emakumez inguratuta.

Ordenagailu aurrean jarri eta bururatzten zaidana idazten dut, eta batzuetan ordenagailu aurrean denbora pilo bat pasatzen dut ezer okurrizten ez zaidala. *Elgeta* idazten bukatzeko, bost hilabete hartu nituen, baina ordurako nahikoa montatuta nuen istorioa, banekien nondik nora joango zen.

Literatura egitea hitzekin, ideiekin eta irudiekin jokatzeko da. Nik gauza normalak idazteko nahikoa aukera badaukat, hau da, Elgetaren biografia egiteko aukera izan dut. Baina ez nuen gauza normal bat idatzi nahi, jokatu egin nahi nuen eta literatur kontakizun bat egin. Zailagoa da literatura idaztea.

**HILERO BAT
GUTXIAGO
EDANEZ GERO...**



ZIZURKIL

Matriarkatua, mitoa ala errealitatea?

Teresa del Valle antropologoak hitzaldia eskaini zuen

Euskal Herriko gizartea gizarte matriarkatua izan zela askotan entzun dugu. Euskal Herrian emakumeek agindu dutela edota egun oraindik agintzen dutela, beraz, behin baino gehiagotan entzuten den kontua da. Hala ere, kontu hauek kontuak dira errealitatea baino gehiago, mitoa, alegia. Izan ere, eta Teresa del Valle antropologoaren esanetan, gizarte matriarkatu batean emakumeek dute boterea, eta hala Euskal Herrian nola munduko gainerako herrialdeetan inoiz ez da horrelako gizarterik izan.

Euskal Herriko gizartea gizarte matriarkatua izan zela pentsatzeko arrazoiak, Julio Caro Baroja eta Joxe Migel Barandiaranen lanetatik hartu direla azaldu zuen Teresa del Valle: "Barojaren *Los pueblos del norte* liburuan, familiko heredentzia eta abizenak emakumeek transmititzen zituztela jartzen du. Ildo beretik, Barandiaranek, Mari bezalako emakumezko pertsonaia mitologikoen eta baserriko emakumeek zuten boterea aipatzen ditu bere lanetan. Datu hauek guztiak euskal matriarkatua existitu zela arrazoitzeke erabili izan dira". Teresaren ustetan datu historiak gaizki interpretatu dira, emakumeek zenbait zeregin edukitzeak ez baitu esan nahi emakumeek boterea dutenik, eta ondorioz, ezin dira erabili datu horiek euskal matriarkatua existitu zela esa-



Teresa del Valle antropologoa

teko. 60.eko hamarkadan sortu eta zabaldu zen euskal matriarkatuaren idesia hori, baina berehala kritikatu zuten uste faltsu hori. Esate baterako, Aranzadik, Euskal Herrian matriarkatua izan zela zioen teoria hankaz gora jarri zuen. Gaiak kezkatuta, Euskal Herriko Unibertsitatean lan talde bat osatu zuten euskal emakumearen errealitatea aztertzeke, eta lan talde horretan hartu zuen parte Teresa del Valle.

ARDURA ETA BOTEREA EZ DIRA GAUZA BERA

Mujer vasca, imagen y realidad izeneko liburua argitaratu zuen lan talde horrek, eta euskal emakumeek ditugun baloreak, hartzen ditugun erabakien eragina eta funtsa, eta finean, gizartean dugun boterea aztertu eta argitaratu zuten bertan. "Ikerketa egiten ari ginela euskal matriarkatua ez zela existitu argi eta garbi ikusi genuen. Eta baieztapen hau egiteko kontzeptu interesgarri batzuk argitu genituen. Hau da, emakumeek ardura batzuk edukitzeak ez zuela boterea

edukitzea suposatzen argitu genuen", adierazi zuen Teresak. Izan ere, euskal emakumeek bete beharreko ardura asko ditugu, ardura pisutsuak asko —dirua hilaren amaiera arte iristea, adibidez—, baina funtzio batzuk betetzeak ez du boterea edukitzea suposatzen. Itsasertzeke emakumeen adibidea azaldu zuen del Valle bere ideia defendatzeko. Izan ere, itsasertzeke emakumeek ardura asko dituzte, eta horren arrazoiak gizonak etxean nola kalean gutxiago egoten direla da, "itsasora joan behar baitute arrantza egitera". "Emakume hauek, gainera, ardura horiek egin behar pisutsu moduan ulertzen dituzte, ez botere moduan".

**"Ardura batzuk
edukitzea ez da
boterea edukitzea,
bete behar batzuk
edukitzea baizik"**

Euskal emakumeek betebeharrasko dituzte.

ZEHARKAKO BOTEREA, MENPERATUEN BOTEREA

Boterea, erabakitzeko eta egiteko ahalmena da, bakoitzak duen ahalmena bere erabakiak aurrera eramateko. "Askotan, emakumeok zeharkako botereak ditugula esan ohi dute, hiru botere mota batik bat: gorputza erabiltzeko ahalmena, hau da, sedukzioaren boterea; etxeko lanak eta jaki goxoak egiteko ahalmena; eta azkenik, haurrak zaintzeko, eta beraz, eurengan eragiteko boterea", aipatu zuen hitzaldian antropologoak. Zeharkako botere hauek, ordea, benetako botere ez direla esan zuen. Izan ere, benetako boterea duenak ez du bigarren mailako botererik erabili beharrik, eta beraz, ahalmen hauek botere nagusiak bere menara edukitzeko eskaintzen dituen ahalmen txiki batzuk besterik ez dira.

EUSKAL MATRIARKATUA EZBERDINTASUNAREN ZEINU

Matriarkatua ez da munduko inongo gizartean antolatua, hau da, ez da orain artean inolako gizarte matriarkaturik ezagutu. Hala ere, eta Euskal Herrian gehienbat, behin baino gehiagotan entzuten dugu euskal matriarkatuaren kontu hori. Teresaren esanetan, 70-80.eko hamarkadan sortu eta zabaldu zen ideia hau, eta Euskal Herria gainerako herrialdeetatik ezberdina zela arrazoitzeko erabili izan zen euskal matriarkatuaren ideia. "Mugimendu abertzaleak gure herriaren ezberdinatsuna aldarrikatzeko erabili zuen euskal matriarkatuaren mitoa. Baina errealitateak erakusten digu emakumeok eragin gutxi duten erabakiak hartzen ditugula".



"Euskal matriarkatuaren ideia euskaldunak ezberdinak garela arrazoitzeko erabili izan du abertzaletasunak"

ALARDEAREN GORA BEHERAK

Teresa del Valle Irun eta Hondarribiko alardearen auzia aipatu zuen azken bi hamarkadetako gertaera garrantzitsu moduan. "Auzi honetan ez da emakumearen parte hartzea bakarrik kuestionatzen, tradizioa baizik. Hau da, auziaren gakoa tradizioaren jabe nor den eta aldatzeko ahalmena, boterea nor duen da".

Azkenik, eta emakumeen erabakiak eta botereak egungoak baino era-

ginkorrakoak izateko, eta finean, gizonezkoek agintzen duten gizarte honetan emakumeen parte hartzea areagotzeko, elkarre eta taldeen garrantzia azaldu zuen del Valle. Izan ere, emakumeak bilduz eta presionatuz gizonezkoen esku dagoen botere politikoa, eta azken batean, gizartean eragitea posible izango da. Eta helburua, noski, boterea guztien esku egongo den gizarte bat osatzea da, guztiok egiten dugun gizarte bat, alegia.

ALFARO
JATETXEA

EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

Exuri Beltz

Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA

Billabona

TXIRRINDULARITZA PROBA 1957



Ezkerretik eskuinera: Ezezaguna, Federico Martín Bahamontes, Hortensio Bidaurreta (atzean), Migel Bidaurreta, Pablo Izagirre andoaindarra, Francisco Moreno murtziarra, Morales bizkaitarra eta Suarez txirrindulari kataluniarra.

Billabonako Santiotan egiten zuten txirrindulari froga bateko argazkia da hau. Estatu txirrindulari onenak etortzen ziren froga hori egitera, eta gero, Ordiziko frogan hartzen zuten parte. Aipatzekoa da Bahamontes txirrindulariak Frantziako tourra irabazi zuela Billabonako txirrindularitza lasterketa hori korritu eta bi urtetara.

Argazkiko txirrindularien izen-abizenak eta informazioa Billabonako Alfonso Mendia eta Josetxo Izagirrek eskaini digute.

Oharra

Etxean hauts tartean gordeta dituzun argazki zaharrak Aiurri azaldu nahi baldin badituzu, deitu ezazu gure egoitzara. Aldizkariko kazetariak zurekin harremanetan jarriko dira argazkiaren kopia bat ateratzeko eta bertako informazioa jasotzeko. Aiurriren telefonoa 300732 da.



ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

FRANCISCO
MENDIKUTE
Harategia



Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN


PATXINE
JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXERKO POSTREAK
Errementari, 1 ☎ 69 10 25 - ASTEASU

Asun Aizpuru.

Parasikologoa eta sofrologoa.



–Nola definituko zenuke zure burua?

Parasikologia eta sofrologia ikasi ditut, eta orain mirarici buruzko ikastaro bat egiten ari naiz. Ez dut nire burua mediku kontsideratzen. Jendeak dituen arazoak konpontzen laguntzen dut. Jendeari entzun eta berarekin hitz eginez pertsona hori hobeto sentiaraztea da nire lana.

Horrezaz gain, pertsonalki, asko aberasten naute esperientzia horiek guztiak, eta gainera, besteci laguntzean ni neroni ere hobeto sentitzen naiz.

–Noiztik ari zara lan horretan?

Umetatik hasi nintzen “askatasunaren” bila. Bakoitza bere buruarekin gustura sentitzeko moduak bilatzeari ekin nion. Horrezaz gain, zenbait autore ezberdinen liburuak jarraituz, pentsamentu positiboak edukita, lagun bati bere trabak gaintzen lagundu nion, nola lagundu behar nuen zehatz jakin gabe. Ordutik gaur egunera jende gehiago hurbildu da nigana, eta beraz, bost urte horietan lagun gehiago dira nigan konfidatu eta beren arazoak gaintitu dituztenak.

–Zein arazo motarekin hurbiltzen zaizkizu bezeroak?

Arazo edota traba mota guztiak gaintzen saiatzen naiz. Gauzak horrela, bere burua baloratzen ez dutenak, pentsamentu txarrak dituztenak, beldurrak, bakardadea edota edozein arazoa dutela ere beren traba horiek atera eta gaintzen saiatzen naiz. Beraz, ez dago bezeroaren tipologiarik egiterik, kultura maila ezberdineko eta adin eta sexu ezberdineko jendea etorri ohi da nire kontsultara.

–Billabonan eta Andoainen hitzaldiak emango dituzu?


Zein hitzaldi mota?

Orain arte, gehienbat, Lasarten eta Donostian eman ditut ikastaroak edota hitzaldiak, eta orain, beste herrietara hedatu nahian nabil. Horregatik, apirilaren 16an Billabonako kultur etxean “Como sentimos mejor con nosotros mismos y las relaciones con los demás” izenburupeko bi hitzaldi emango ditut. Herritar guztiengana iristeko entzuleek bereaieki nahi duten hizkuntzan emango ditut hitzaldiak. Arratsaldeko hiruretatik bostetara eta sei etatik zortzietara emango dira hitzaldiak. Andoainen berriz, apirilaren 23an emango dut hitzaldia, eta gai bera aztertuko dut. Andoainen arratsaldeko zazprietatik bederatzietara izango da txarria. Lasarten bezala, herri horietan ere jendearen erantzuna ona izango dela espero dut.

–Zer lortu nahi duzu hitzaldi edota ikastaro horiekin?

Nire nahia hitzaldira datozenenak lasaigo eta askeago sentiaraztea da. Hau da, bakoitza bere indarrak jabearaztea hobeto sentitzeko. Beldurrek ez digute gu izaten uzten, eta beraz, nire aportazio txiki horrekin pertsona seguruagoa eta zoriontsuagoa izaten laguntzen dut.

PERTSONAIA EZKUTUA




Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria ezaguna da oso. Lehen ere gure aldizkarian atera izan da, izan ere, Beterri-Aitzondo bailarako herritarra da. Horrezaz gain, bere lanbidea dela eta, gazte eta heldu guztiak ezagutzen dute.

Saria bikaina da oraingoa ere: Andoaingo Alfaro jatetxeak bi lagunentzako afaria eskaini digu oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain. Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

ALFARO JATETXEA

EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**



HAURRENTZAKO ANTZERKIA

ANDOAIN

Apirilak 20: Kukubiltxok eskainiriko "Behin bazen" antzezlan. La Salle antzokian, arratsaldeko 17:30etan.

Apirilak 27: Gorakada taldearen "Pinotxo 2.000" antzezlan. La Salle antzokian, arratsaldeko 17:30etan.

MUSIKA

Apirilak 25: Andoaindar musikarien zikloaren barruan Sokako laukotaren kontzertua. Olagainen, arratsaldeko 20:00etan.

ZINEA

BILLABONA

Apirileko programazioa:
De que se rien las mujeres
Space Jam
Michael Collins
Jerry Maguire
Larry Fly'n

IRTEERAK

ANDOAIN

Apirilak 20: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Orixol eta Jarindo mendietara irteera.

Apirilak 13: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Aizkorri mendira irteera. (*Haurrentzat*)

HITZALDIAK

BILLABONA-ANDOAIN

Apirilak 16: Asun Aizpuruaren hitzaldia Kultur Etxean. Gaia: "Como sentirnos mejor con nosotros mismos y las relaciones con los demás". Billabonan arratsaldeko 3etatik 5etara eta 6etatik 8etara, eta Andoainen berriz, arratsaldeko 7etatik 9etara.

BESTE

ADUNA

Apirilak 13: Muskil elkarteak antolatuta binakako eskuzko pilota txapelketaren finala goizeko 10:30etan. 8-14 urte bitarteko haurrentzat zuzendua.

Apirilak 14: Haurrentzat zinema Kultur aretoan, arratsaldeko 18:00etan.

Apirilak 25: Helduentzat zinema Kultur aretoan, gaueko 22:30etan.

ANDOAIN

Apirilak 22-24: 16-18 urtetik gorako helduentzat poesia emanaldia udal liburutegian, arratsaldeko 19:15etan.

Apirilak 23: Liburutegiko irakurleen artean liburu zozketa egingo da.

BILLABONA

Apirilak 18: Pello Añorgak eskainitako ipuinaren ordua. 6-8 urte bitarteko haurrei zuzendua. Udal Liburutegian, arratsaldeko 18:30etan.

ERAKUSKETA

ANDOAIN

Apirilak 4-13: Edorta Langararen "Instalazioak" erakusketa.

RIKARDO ARREGI HEMEROTEKA

Euskarazko aldizkari zaharrak biltzen ditugu hemerrotekako fondoa osatzeko: *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Argia*, *Goiz Argi*, etab. Informazio gehiago Larramendi Bazkunean (Elixabete Jaurregi edo Xabier Lasa). 30 07 33 telefonora deiturik.

KOMIKIA

hau esguztaldia Buf!!!




Taberna · Jatetxea

Buruntza

- Eguneko menua
- Etxeko plater bereziak
- Lagunarteko despedidak
- 100 lagunentzako jangela

Baletxiki, 15 · Telf.: 59 06 47
ANDOAIN



**ERRENTA
AITORPENAK**

**AHOLKULARITZA
ARTEZKARIA**

IRAOLA

**ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK**

Nagusia, 37
Tlfnoa.: 692763
Fax: 692774
20150 BILLABONA

KONFIDANTZA.




Egunetik egunera, hobetzen ari gara.



**KIDEGASEKO BEZEROEN
ARRETARAKO ZERBITZUA**

900 121 775

GASA INSTALATZEAZ GAIN AHOLKU ETA GOMENDIOAK ERE EMATEN DIZKIZUGU



APARAILU BAT ERABILTZEKO:
LEHENENGO, APARAILURA
DOAN LOTURAZKO GILTZA
IREKI EZAZU. BIGARREN, HUR-
BIL EZAZU POSPOLOA PIZTU-
RIK ERREGAILURA EDO ERAGIN
EZAZU PIZTEKO ERAGINGAI-
LUA. HIRUGARREN, IREKI
EZAZU DAGOKION GILTZA.



idegas, s.l.
GASA ETA BEROGINTZA
ZURE GAS AHOLKULARIAK

EZ DUZU OSASUNIK IRABAZIKO



BAINA BAI INFORMAZIO HOBEXEAGOA

Eman ezazu izena AIURRI-n, eta hamabostean behin jasoko duzu etxean zure herriko berri dakarkizun aldizkaria. Hilero 200 pta. baino ez du balio, bi pintxo, kaina batek, edo bi kafek adina.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

Kontu korrontearen zenbakia:

Helbidea:

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Kodea: Herria:

Tokia data eta izenpetxea:

Lanbidea: Jaiotze data:

Etxeko[☎] : Laneko[☎] :

Nora eraman txartel hau: Andoainen, Billabonan eta Asteasun: Gipuzkoa-Donostia Kutzara edo Euskadiko Kutzara. Gainera, Andoainen: Aiurrira bertara edo Delgado, ernaitza, Ikas-Jolas, Minikost, eta Stop liburudendetara. Billabonan, Kultur etxe edo euskaltegietara eta Basajaun liburudendara. Zizurkilen, Iriarte kultur etxera eta Arregi plazako kultur etxera. Asteasun, Kultur etxera. Adunan, ostatura. Larraulen, herri-ostatura.